LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

OZ-2024-024
EE-2024-00099

LARRABETZUKO UDAL-ERAIKIN ETA INSTALAZIOETAN DAUDEN INSTALAZIO TERMIKOEN (GALDARAK) MANTENUA EGITEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO, PROZEDURA IREKI ARRUNTA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUAREN KARATULA

A.- Kontratuaren objektua.

Plegu honen arabera burutuko den kontratuaren objektua da Baldintza Teknikoen Pleguaren 2. Atalean zehazten diren eraikinetan dauden instalazio termikoen mantentzea eta kontserbazioa egiteko zerbitzua kontratatzea.

Zerbitzuaren modalitatea mantentze prebentiboa, zuzentzailea eta legionelosiaren prebentzioa izango da, eraikin bakoitzaren beharrizan berezien arabera, baldintza-agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agiriaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Kontratatu beharreko zerbitzuaren helburua honako hau da:

- Instalazioen mantentze-lanak egitea, osagaien zati eta elementuen kontserbazio-egoera onena lortzeko; instalazioen funtzionamendu jarraitua eta eraginkorra bermatzea, funtzionamendu-errendimendu onenarekin eta energia-kontsumo txikienarekin, matxuren ondorioz egon daitezkeen geldialdiak minimizatuz eta eraikinen eta instalazioen segurtasuna bermatuz.

- Legionelosia prebenitzeko zerbitzua, 865/2013 Errege Dekretuaren arabera, Baldintza Teknikoen Pleguko 6.1 atalean adierazitako eraikinetan.

Kontratuaren objektuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 50531100-7 Galdaren mantentze zerbitzua

B.- Zerbitzu sustatzailea

Larrabetzuko Udala.

C.- Kontratazio organoa eta zuzendaritza.

Alkatetza

Askatasuna Enparantza, 1 48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Kontratazio mahaiaren osaketa.

Presidentea	Iñigo Gaztelu Bilbao, Udaleko Alkate-Presidentea.
Bokala 1	Izaskun Etxebarria Vadillo, Aparejadorea Udaleko funtzionarioa
Bokala 2	Ortzi de la Quintana Ibáñez, Udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.
Idazkaritza	Nerea Uriarte Iza, Udaleko funtzionarioa

D.- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua:

a).- Mantentze prebentiboko zerbitzurako:

Urteko prezioa (oinarria)	2.750,00 €
BEZ 21%	477,50 €
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	2.750,00x4= 11.000,00 €
BEZ 21%	2.310,00 €
GUZTIRA	13.310,00 €

b).- Mantentze zuzentzailearen zerbitzua:

- Orduko prezioa: 50 euro
- BEZa: 10,50
- Orduko prezioa, BEZa barne: 60,50 euro

Gutxi gorabehera, kontratuaren zenbatekoa zehazteko, batez beste berrogeita hamar ordu ezartzen dira urtean.

Urteko prezioa (oinarria)	2.500,00 €
BEZ 21%	525,00 €
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	2500,00,00x4= 10.000,00 €
BEZ 21%	2.100,00 €
GUZTIRA	12.100,00 €

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Eskariaren araberako zerbitzua denez, zerbitzuaren orduko prezioa ezartzen da prezio unitariotzat. Enpresa esleipendunak 204. artikuluan, SPKLren 33. xedapen gehigarrian eta AKPPren 4.1 eta 9.8 klausuletan ezarritakoaren arabera egin beharreko zerbitzuen kopurua zehaztasunez ezartzerik ez dagoenez, prebentziozko mantentze-lanen gehieneko aurrekontua % 20an aldatu ahal izango da. Edozein aldaketa egin aurretik, aurrekontuko diru-izendapena egin beharko da, ezarritako gehienezko aurrekontua agortu baino lehen.

a)+b).- Kontratuak osotasunean duen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

Urteko prezioa (oinarria)	5.250,00 €
BEZ 21%	1.102,50 €
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	5.250,00,00x4= 21.000,00 €
BEZ 21%	4.410,00 €
GUZTIRA	25.410,00 €

- Kontratuaren balio zenbatetzia.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	21.000,00 €
Luzapenak	Ez dira aurreikusten
204. art. Aldaketak (gehieneko aldaketa LOAren gainean)	Ez da aurreikusten
GUZTIRA	21.000,00 €

E.- Kontsignazioa aurrekontua

Badago aurrekontu-kreditu nahikorik kontrataziotik jaiotzen diren betebehar ekonomikoei aurre egiteko, 2231 21101: 323 21101; 230 21101; 230 21201; 920 21102 aurrekontu-partidetan zorduntzeko.

Kreditua gordeko da kontratazioa dela bide sortzen den gastuari aurre egiteko; hori, bai eta aurretiazko fiskalizazioa nahiz onespena ere, behin kontratuaren esleipendun den eskaintzaren zenbatekoa ezagutzen denean egingo dira.

Udalak egingo du zerbitzu kontratu honen finantziazioaren %100.

F.- Urteak

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

2024 urtea
2025 urtea
2026 urtea
2027 urtea

G.- Izapidetza

Arrunta

H.- Prozedura eta esleipen forma

Prozedura ireki arrunta

I.- Esleipen elektronikoko sistema

Derrigorrezko erabilera

J.- Esleipen irizpideak

Kontratuaren esleipena egiteko oinarria izango diren irizpideen balorazioa hurrengoa da, garrantzia eta eman zaien ponderazioaren arabera sailkatuak:

1. Era automatikoan zenbatu daitezkeen irizpideak: 80 puntu.

1.- Mantentze prebentiboaren prezioa: 60 puntu.

Eskaintza ekonomikoak formula honen arabera baloratuko dira.

$$POi = Pmax \times (PBL-Oi)/(PBL - CB)$$

POi = Kalkulatu nahi den eskaintza zehatzari dagokion puntuazioa
Pmax = Lortu beharreko gehieneko puntuazioa (60 puntu)
PBL = Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.
Oi = baloratu beharreko eskaintza
CB = 1098/2001 Errege Dekretuaren 85.3 artikuluan ezarritako anormaltasun-atalasean dagoen zenbatekoa. aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren % 90.

Lizitazioaren oinarrizko prezioaren % 20tik gorako baja duten eskaintzak neurriz kanpokoak izango dira. Hemen ezarritako irizpideen arabera eskaintza anormalki baxuren bat edo batzuk aurkeztuz gero, kontratazio-mahaiak (SPKLren 149. artikuluan

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

ezarritakoaren arabera) eskaintza anormalki baxuan dauden lizitatzaileei eskatuko die egindako jaitsiera arrazoitu eta xehekatzeko. Kontratazio-mahaiak justifikatu beharko du eskaintza anormalki baxua baztertu edo onartu izana.

2.- Mantentze zuzentzailearen prezioa: 20 puntu.

Eskaintza ekonomikoak formula honen arabera baloratuko dira.

$$POi = Pmax \times (PBL-Oi)/(PBL - CB)$$

POi = Kalkulatu nahi den eskaintza zehatzari dagokion puntuazioa
Pmax = Lortu beharreko gehieneko puntuazioa (20 puntu)
PBL = Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.
Oi = baloratu beharreko eskaintza
CB = 1098/2001 Errege Dekretuaren 85.3 artikuluan ezarritako anormaltasun-atalasean dagoen zenbatekoa. aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren % 90.

Lizitazioaren oinarrizko prezioaren % 20tik gorako baja duten eskaintzak neurriz kanpokoak izango dira. Hemen ezarritako irizpideen arabera eskaintza anormalki baxuren bat edo batzuk aurkeztuz gero, kontratazio-mahaiak (SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera) eskaintza anormalki baxuan dauden lizitatzaileei eskatuko die egindako jaitsiera arrazoitu eta xehekatzeko. Kontratazio-mahaiak justifikatu beharko du eskaintza anormalki baxua baztertu edo onartu izana.

3.- Udalak mantentze-lan zuzentzaileetan jarduteko egindako eskaerari erantzuteko denbora: 5 puntu, gehienez.

Eskaintzak honela baloratuko dira:

Bi ordu baino gutxiago: 5 puntu.
Bi eta lau ordu bitartean: 2,5 puntu.
Lau eta sei ordu artean: puntu 1.

Neurriz kanpokoak izango dira aurkeztutako proposamen guztien baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoa baino ehuneko 20 puntu handiagoa duten eskaintzak.

2. Automatikoki kuantifikatu EZIN diren irizpideak: 15 puntu, gehienez.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Memoria teknikoa, non batez ere deskribatzen diren zerbitzuaren prestazioen, langileen, materialen edo instalazioen mantentze prebentiboan zein zuzentzailean garrantzitsuak izan daitezkeen beste alderdi batzuen lan egiteko eta kudeatzeko modua.

Baita mantentze-lanen plangintza edo programa bat ere, egin beharreko gutxieneko lanekin eta horien aldizkakotasunarekin.

K. Behin-behineko bermea

Ez da eskatuko.

L. Behin-betiko bermea

Esleipen zenbatekoaren %5 BEZ kenduta.

LL. Prezioen berrikuskapena

Ez dagokio

M. Aldaerak baimentzea

Ez dira aldaketak onartuko.

N. Betearazpen epea

Kontratuaren betearazpen epea lau (4) urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den hurrengo lan-egunetik aurrera zenbatuta.

Ñ. Luzapen aukera

Ez

O. Betearazpen lekua

Larrabetzu. Baldintza Teknikoen Pleguaren I. Eranskinean zehaztutako udal-titulartasuneko eraikinak.

- Eskola Publikoa
- "Gure Etxea", jubilatuen etxea.
- "Anguleri" jauregia, kultur etxea
- Udaletxea
- Haurreskola

- Polikiroldegia-frontoia
- Igerilekuak
- Futbol zelaiak
- "Errebale" zerbitzu eraikina.
- Udal-txokoa
- Ludoteka

P. Bermea eta jasotzeko epea.

Bermearen epea urte batekoa izango da, haren jasotze formaletik aurrera.

Q. Proposamenak aurkezteko epea

Epea **15 egun naturalekoa** da, esleitze iragarkia kontratazioaren profilean (Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman) argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

R. Proposamenak aurkezteko lekua.

Larrabetzuko Udaleko lizitazio plataforma.

Proposamenak aurkezteko forma. Bi gutun-azal elektroniko aurkeztuko dira.

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Erantzukizunpeko deklarazioa –aurretiazko irizpideak-
.

B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa – aurretiazko ebaluazioa –.

C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –ondorengo ebaluaketa-.

Gutun-azal bakoitzaren barnean adierazi beharko da, orrialde independente batean, dauden dokumentuen zenbakizko erlazio bat (aurkibidea)

Proposamenen edukia

A GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA. Gutun-azal honek hurrengo dokumentazioa jasoko du:

1. BAZPen I. eranskinarekin bat eginez kontratatzeko baldintzak bete egiten direnaren erantzukizunpeko deklarazioa (DEUC)

Plegu honek eta legeak exijitzen dituen baldintzak bete diren ikusteko unea proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

Gutun-azal honetan, irizpide subjektiboetan identifikatutako dokumentu guztiak sartuko dira, eskaintzak balioesteko eta haztatzeko behar den dokumentazio guztiarekin, automatikoki kuantifikatu ezin diren edo balioespen subjektiboa duten esleipen-irizpideei dagokienez. Agiri horiek plegu honen karatulako J.2 atalean zehazten dira.

C GUTUN-AZALA: ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

C gutun-azalaren barruan sartuko da proposamen ekonomikoa II. Eranskinean xedatutakoarekin bat eginda.

S. Publizitate gastuak

Pertsona edo enpresa kontratistaren kontura izango dira Aldizkari Ofizialetan, zein egunkarietan edota bestelako hedabideetan lizitazioaren publikazioaren ondorioz sor daitezkeen gastuak, hirurehun euroko gehienezko zenbatekoa arte.

T. Gaitasuna, derrigorrezko enpresari edo profesional gaikuntza eta kaudimena. (Dokumentazio administratiboa).

T1. Gaitasuna.

BAZPen ezarritakoaren arabera.

T2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa eta profesionala.

1.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena honako bide hauetako baten edo batzuen bidez egiaztatu ahal izango da:

- Kontratuaren eremuko urteko negozio-bolumena, enpresaburuaren eraketa edo jardueraren hasieraren eta eskaintzak aurkezteko daten arabera eskuragarri dauden azken hiruren arteko ekitaldirik onenari dagokionez, kontratuaren urteko batez besteko balioaren (7.500,00 euro) behin eta erdikoa izan beharko da gutxienez. Urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartu eta

gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Enpresaburua erregistro horretan inskribatuta dagoenean, eta, horren ezean, enpresaburua agertu behar den erregistro ofizialean gordailututakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontu-liburuen bidez.

• 150.000,00 euroko erantzukizun profesionaleko aseguru baten egiaztagiria.

Kaudimena egiaztatzeko, enpresaren negozio-bolumen orokorra adierazten duen enpresaburuaren adierazpena aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeak beti egiaztatuko du kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa edozein kontratazio-organoren aurrean.

2.- Gaitasun teknikoa edo profesionala:

Kontratuaren xedeari dagozkion mota edo izaera bereko lanak egiten esperientzia izatea, gehienez ere azken hiru urteetan. Esperientzia horretan honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua, eta AZKEN HIRU (3) URTEETAKO exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urtekoaren aurrekontuaren % 70 edo gehiago izatea.

AZKEN HIRU (3) URTEETAN egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrendaren bidez egiaztatuko da, eta horien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adieraziko dira. Eskaintza aurkezten duen lizitatzaileak gutxienez kontratu honen helburuaren antzeko bi (2) zerbitzu egin dituela egiaztatu beharko du.

Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak, edo hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, azken ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.
Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duenean, kaudimen teknikoa egiaztatzeko, SPKLren 90. artikuluaren 1. paragrafoaren b) eta i) bitarteko idatz-zatietan aipatzen diren bitarteko bat baino gehiago erabiliko dira, eta inola ere ez da aplikagarria izango a) idatz-zatian zerbitzu-kopuru jakin bat gauzatzeari buruz ezarritakoa.

U. Kontratazio profila

www.Larrabetzu.eus

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

V. Bestelako zehaztasunak

- Pertsona edo enpresa kontratistaren lan-betebeharrak:

Kontratua gauzatzeari atxikitzen zaizkion langileak erakunde esleipendunaren mende daude soil-soilik. Erakunde esleipendunak enpresaburu izateari datxezkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta lan arloko legerian, gizarte segurantzan, laneko segurtasun eta higienean eta arriskuen prebentzioan indarrean dauden baldintzak bete beharko ditu, bai eta langile horietatik erator daitezkeen zerga eta betebehar fiskal guztiak ere. Udalak ez du erantzukizunik izango pertsona edo enpresa kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gainean.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, esleipendun gertatzen badira, eta kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko dute.

Erakunde esleipendunak, kontratua gauzatu bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Erakunde esleipendunak konpromisoa hartzen du ordainsari egokia jasotzeko, eta lan-baldintzak edo langileen ordainsariak hobetzearen kostua zuzenean bere gain hartuko du, eta inola ere ez Udalari helarazteko moduan, hobekuntza hori hitzarmen kolektiboen, itunen edo edozein motatako akordioren ondorio izan zein beste edozein zirkunstantziaren ondorio izan.

Pertsona edo enpresa kontratista izango da bere eginkizunak betetzeagatik langileek izan ditzaketen istripuen erantzule, lan-arloko jurisdikzioaren aurrean. Ildo horretan, pertsona edo enpresa kontratistak beharrezko segurtasun-neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren xedapen guztiak betetzera behartuko ditu.

Zerbitzu-kontratua amaitzean, ezin izango dira inola ere finkatu kontratuaren xede diren lanak administrazio kontratatzaileko langile gisa egin dituzten pertsonak.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

- Lan-baldintzak:

Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrei dagokienez, langileei alta eta baja eman beharko zaie, eta soldatei eta kotizazioei dagokien ordainsaria jaso beharko dute, beren lanbide-kategoriaren eta hitzarmen kolektiboaren arabera.

Aplikatu beharreko lan-hitzarmena desinfekzio, desinfektatze eta arratoiak hiltzeko sektoreko hitzarmen kolektiboa da, eta kontratu horretan parte hartzen duten langileek indarrean dagoen sektoreko hitzarmen kolektiboaren araubidearen pean jardungo dute.

Enpresa esleipendunek erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko dute indarrean, gerta daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

- Hizkuntza-betebeharrak.

Kontratu honen xede den zerbitzua emateko, kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da; beraz, erabiltzaileekiko harremana euskaraz izango da eta hizkuntza horren presentzia sustatuko da.

Kontratu honen bidez udalarekin sortzen diren komunikazioak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira.

Hizkuntza-paisaiari dagokionez, hau da, errotuluak, oharrak, materialak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo piktogramen bidez egingo dira.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

- Berdintasun-klausulak.

Enpresa esleipendunak aukera-berdintasuna bermatuko du emakumeen eta gizonen arteko tratuan, enplegurako sarbidean, lanbide-sailkapenean, prestakuntzan, soldatetan eta abarretan.

Enpresa esleipendunaren plantillan bermatuko da emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatuko dela prestakuntzarekin, langileen aukeraketarekin, sailkapen edo kategoria profesionalekin, arretarekin, sustapenarekin, soldatekin, laneko egonkortasunarekin edo iraunkortasunarekin, ordezkaritzarekin, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin eta lanaldiaren iraupenarekin eta antolamenduarekin lotutako politiketan.

Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua badu, kontratua gauzatzeko epean emakumeak kontratatzeari eman beharko dio lehentasuna. Plantilla desorekatutzat hartuko da emakumeen ordezkaritza plantilla osoaren % 50etik beherakoa denean.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 211. artikuluaren arabera.

- Ordaintzeko modua.

Hiru hilean behin faktura bat aurkeztu beharko da mantentze prebentibo gisa emandako zerbitzuengatik, eta faktura independentearen xede izango dira mantentze zuzentzaileko zerbitzuak (aurkeztutako albaranaren zenbakia eta egindako zuzenketaren deskribapena adierazi beharko dira).

Kontratuaren prezioa lizitazioaren eskaintza ekonomikoetan aurkeztutako unitateko prezioen arabera ordainduko da. 21101 eta 21102 sailkapen ekonomikoko partidan bideratutako urteko udal-aurrekontua agortzen ez bada, hurrengo ekitaldian soberan geratu den kreditua gehituko da, beharrezkoa bada, eta ez da inolaz ere kontratuaren prezio orokorra gaindituko.

Gauzatutako jarduketa unitario bakoitzari dagokion faktura aurkeztu ondoren ordainduko da prezioa, betiere jarduketa hori udaleko zerbitzu teknikoek onartu eta egiaztatu badute, AKPPn zehaztutakoaren arabera eta banku-transferentzia bidez.

Pertsona edo enpresa kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du fakturak egiteko. Faktura elektronikoak Facturae 3.2 atalean ezarritako formatura egokituko dira, eta sinadura elektroniko aurreratu batekin sinatuko dira, baliozkotutako ziurtagiri batean oinarrituta.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du Larrabetzuko Udalaren webgunean dagoen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Faktura organo hartzaileari behar bezala jaulki ahal izateko, honako hau adieraziko da:

Kontabilitate publikoaren organo eskuduna: kontu-hartzailetza.
Kontratazio organoa: Alkatetza
Fakturaren organo hartzailea: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

- Lanen jabetza.

Kontratua gauzatzeko egiten diren azterlan eta dokumentu guztiak Larrabetzuko Udalaren jabetzakoak izango dira. Udalak osorik edo zati batean erreproduzitu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, lanak egin dituen pertsona edo enpresa esleipendunak aurka egin gabe.

Pertsona edo enpresa esleipendunak ezin izango ditu erabili edo zabaldu kontratu hau gauzatzearen ondorioz egindako azterlanak eta dokumentuak, ez osorik ez zati batean, ez zuzenean, ez laburbilduta, kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren xedea jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea bada, pertsona edo enpresa kontratistak Administrazio kontratatzaileari lagako dio.

- Kontratua suntsiarazteko arrazoi zehatzak dira:

o Eskaintzan zehaztutako baldintzak eta kontratuaren xede den prestazioa ez betetzea edo gaizki betetzea.
o Pleguetan oinarrizkotzat jotzen diren kontratu-betebeharrak ez betetzea.